

## ERANSKINAK

1. eranskina. Egunerokoak.....	2
2. eranskina. Elkarrizketak.....	21
3. eranskina. Proposamena.....	45
4. eranskina. Gurasoentzako ebaluazio idatzia.....	52

## 1. Eranskina. Egunerokoak

Behatzailea koaderno txiki batez baliatu da lanaren atal hau egiteko, eta bertan jaso izandako apunteetatik, hurrengo gogoetak sortu ditu.

*Abuztuak 15*

Norvegiara heldu bezain pronto haur hezkuntzako gela batean murgiltzea izan da nire helburu nagusietako bat. Magisteritzako eskolan hainbatetan entzundako hezkuntza-sistema arrakastatsua bizi eta frogatu nahi nuen. Bodøra heldu baino lehen, erreza zirudien asmoa betetzea, izan ere, eskolek komunitatearekin elkarlan handia izan ohi duten erakundeak dira. Hala ere, errealitatea bestelakoa izan da. Poliziarekin eta unibertsitatearekin hainbat bilera egin ditut, agiriak sinatu ditut, email ugari bidali ditut, hainbat haur eskolekin kontaktuan jarri naiz, etab. Azkenean, egindako saiakera eta esfortzu guzti horien ostean, Norvegiako eskola batean onartua izatea lortu egin dut.

Abuztuaren 15ean, Zuzendariarekin bildu nintzen. Hark informazio ugari eman zidan eskola, profesional eta izango dudako ikasle taldearen inguruan. Aipatu beharra dago, momentu oro bertako langile moduan tratatu ninduela, ezagutu garen lehenengo momentutik nigan konfidantza osoa jarritz. Horixe ez da emakume honen izaera, ezagutu ditudan gizarte honetako pertsona guztiek horrela sentiarazi bainaute. Nire ustez, gehiegi konfidatzen dute eta horren seinale da, haur eskolako atea egun osoan zehar publikora zabalik egotea.

Haur eskola hau Bodøko Mørkved auzoan kokatuta dago. Natura eta unibertsitatea da auzo honetako aipagarriena eta horregatik, hona etortzen diren haur guztiak harreman estua daukate azkenengo honekin: guraso edo senitartekoak bertan ikasten edo lan egiten baitute.

Haur eskola bitan zatituta dago: *Sokrates* eta *Pitagoras*, eta zonalde bakoitza gela bati dagokio. Nabarmendu beharra dago etengabe hazten ari den haur eskola dela, izan ere, hirugarren zonalde bat martxan jarriko dute ikasturte honetako bigarren lauhilekotik aurrera: *Hipocrates*.

Nire taldea, *Sokrates* izango da. Bertan, 2 eta 6 urte bitarteko 19 ume daude. Nazionalitate eta erlijio oso ezberdinetakoak dira eta lau heldu daude eurekin lanean: irakasle bat, pedagogo bat, bi laguntzaile (bata %80eko ordutegia dauka eta besteak, %20koa). Hainbat heldu egoteak ere nire arreta deitu zuen, baina bereziki ezberdina ikusi nuen adin desberdinetako haurrak gela berean egotea! Zelan da posiblea 2 urteko haur batek 6 urteko ume baten erritmoa jarraitzea? Ikustekoa zen, dudarik gabe!

Azaldu beharra dago, lehenengo irudipenak oso onak izan direla. Hasteko,

espazioari dagokionez, gelak erakutsi zizkidatenean liluraturik gelditu nintzen. Haur eskolan, guzti-guztia berria da: altzairuak, jostailuak, sukaldea, etab. Jolastoki handia daukate, espazio ugari eta oso desberdinak. Leiho oso handiak ere badituzte, gelak argiz eta kolorez betetzen dituztenak, paisaia zorogarriak erakutsiz. Benetan polita eta eroso! Esan beharra dago, harritu egin ninduela txokorik ez egoteak eta horregatik, euren lan egiteko era espazio horietan ikusteko irrikaz nengoen.

Lehenengo egun hori, gainbat zalantza eta jakinmina piztu zizkidan eta bereziki, hurrengo eguna heltzeko gogoareagotu zuen. Prest nengoen ondo pasatzeko, haiengandik ikasteko eta batez ere esperientzia ahaztezinak bizitzeko!

### *Abuztuak 18*

Nire lehenengo eguna bolondres gisa oso goiz hasi zen, 7:30etan. Ordu horretan ume gutxi heldu ziren, lau baino ez. Haur eskola honetan, 7:30etatik 8:30ak arte, gosaltzeko ordua da eta laguntzaileak, Wenchek, jartzen die gosaria. Gurasoei erreparatuz, barruraino sartzen dira eta zapatak kentzen dituzte (ikasle eta irakasleak bezalaxe). Barruan pixkatxo bat gelditzen dira (15 minutu edo) haurrei txamarrak kentzen, gosaria ematen, irakasleekin hitz egiten, haurrak agurtzen, etab. Nik nire testuinguru hurbilean, ez dut inoiz horrelakorik bizi. Normalean, gurasoak eskolako atean gelditzen dira eta ez dute eskolarekiko hain harreman esturik.

Harritu nauen beste gauza bat sukaldea gela barruan egotea izan da. Baina logika handia dauka, izan ere, bertan gosaldutxo, jan eta askaldutxo egiten baitute. Ume bakoitzak ekartzen du bere gosaria baina eskolan badago esnea, gailetak, ogia, gurina, etab. Ideia paregabea da, gosea asetu beharreko behar bat baita (Maslowren piramidearen oinarria da!)

Gainontzeko umeak eta irakaslea ere bai 8:30 eta 10:00ak bitartean heldu ziren. Aske jolasten ematen zuten goiza. Izugarria da nola menperatzen dituzten espazioak, nola zaindu eta batzen duten materiala, zeinen pozik etortzen diren eskolara eta zeinen pozik dauden eskolan. Hemen ere, neskak neskekin eta mutilak mutilekin jolasteko tendentzia dagoela ikusi dut, baita jolasteko jolasetan ere bai: neskak jolas sinbolikoetan (super heroietara, familietara...) marrazkiak egiten, etab. eta mutilak legora, kotxeetara, etab.

Ume guztiek dialektoan hitz egiten dute, eta ez dakite ingelesarik. Oso zaila izan da eurak ulertzea. Hala ere, uste baino hobeto moldatu nintzen, izan ere ordura arte unibertsitatean ikasitako esaldi labur eta errezak oso erabilgarriak izan nituen (zenbakiak, orduak, asteko egunak eta abar). Gainera, keinuekin komunikazioa ez

zitzaidan zaila iruditu. Haiak badakite nik ez dakidala norvegiera askorik, heldu bezain pronto guztiek “hola” esaten baitzidaten. (Laguntzaileak esan zidan, aurreko egunean praktikatzen egon zirela ni helduko nintzenerako. Detaile polita euren partetik!)

10:30etan jolasteko gelan bildu ginen, unibertsitateko ikasle batekin (*Sokrateseko* ama den pertsona batekin) eta haur eskolan lan egiten duen laguntzaile batekin, izan ere, gela honetako profesionalak zuzendari eta pedagogoarekin bilera batera joan ziren. Harrigarria da zeinen ohituta dauden jende ezberdina ikustera! Horren beste adibide daukagu, mantenuko gizona heldu denean, guztiek agurtu zutela lasai asko.

Niretzako aurkezpen txo bat egin zuten, bakoitzak bere izena esanez. Horren ostean, amak, ipuin bat irakurri zuen: *Den lille røde høna*. Ingeleseko tradizioan oinarritutako ipuina da. Oiloak ogia egiten du, baina gainontzeko animaliek ez diote lagundu nahi. Ogia eginda dagoenean, ordea, guztiek jan nahi dute. Ipuinean zehar onomatopeia ugari landu dituzte eta ogia egiteko prozesua ere bai. Amaieran gainontzeko animalien jarreraz hitz egin dute, eta ikusi dute ogia jateko guztiek lan egin beharko luketeela. Ipuina nahiko ulergarria izan da, nik ere ulertu baitut nahiz eta norvegiera askorik ez jakin! Beraz, gehienak nahiko gogotsu parte hartu dute.

Ondoren, *takn over skapet*<sup>1</sup> (*Sabaia armairu gainean*) abestia antzeztu eta hortxe bai motibaturik egon zirela!

*To barn holder hverandre i hendene,  
og lager et skap,  
de andre skal gå gjennom:  
Tak over skapet, Mette inn i ska-  
apet  
“sulla”, “lulla”, lei - dra din vei!*

*Bi ume eskuak oraturik,  
eta armairu bat eginik,  
besteek igaro beharko dute:  
Sabaia armairu gainean, igaro ezazue  
“izena”, “izena”, zeuen bidea jarraitu!*

“Zubiri-zubiri”ren mekanika berdina da. Atean bi ume eta andereñoak esaten dituen bi umeak pasatu behar dira eta eskuak garbitzera joan. Komunean jende gehiegi ez pilatzeko tresna erabilgarria eta oso dibertigarria!

11:10etan jan egin zuten. Papila antzeko janari bero bat eta gelako irakasle, laguntzaile eta pedagoaren artean mahaia prestatu eta umeei jaten lagundu genien; baita mahaia batu ere! (Horixe euskal herrian, jantokiko begiraleek egiten dute). Ondoren, arropak eta zapatak janzten lagundu genien eta 12:00etan patiora irten ziren.

Lehengo egun hura oso gogoan daukat. Oso pozik joan nintzen unibertsitatera, nire marrazkitxoekin eta haurrek oparitutako maitasunarekin. Uste baino errazago eta azkarrago onartu ninduten, nahiz eta euren hizkuntza ez hitz egin. Informazio berria leku guztietatik jasotzen ari nintzen, dena ezberdina zen. Ordura arte ikusitakoa benetan

<sup>1</sup><http://www.hellerudtoppen.barnehageside.no/side.asp?seksjonsID=6074> (17/09/2014)

gustokoa nuen.

*Abuztuaren 20tik 29ra*

Egunak pasatu, eta oraindik gurasoekiko harremana oso harrigarria zen niretzat. Armairuak nahi zituztenenan ireki eta nahi zutena hartzen zuten, euren umeekin jolasten aritzen ziren lanera joan aurretik, gosaltzen ematen zieten, etab. Haur batzuei asko kostatzen zitzairen gurasoak agurtzea, baina orduan Wenchek beharrezko laztanak ematen dizkie, gurasoak agurtzeko lehioa zabaltzen du... Horrela, agurra asko errazten du.

Lilurutzen nauen beste gauza bat jolas librea da. Garrantzi handia ematen diote, eta jardunaren denborarik gehiendoa hartzen du. Ipad-era jolasten dute, sexu, arraza eta lanbide ezberdineko panpintxoekin, oihalekin, mahai jokoekin etab. Gizartean aurrera egiteko balore eta gaitasun asko berenganatzen dituzte horrela. Hala nola, errespetua, txandak itxarotea, sozializazioa, ezetzak onartzea, gatazkak konpontzea, eta abar.

Profesionalen jarrera ere mirestekoa da. Abuztuaren 22an, hots, honako esaldia entzun nion irakasleari: “zein ondo gelditzen zaizun soinekoa Pernille”. Vegard-en hitzak oso oso zentzuzkoak izan ziren. Ez zion esan, “zein soineko polita daukazu”, hau da, ez ziteun soinekoaren kalitateak nabarmendu, baizik eta neskatilarenak. Tontakeri bat iruditu daiteke, baina niretzat, bere hezkuntzari buruzko ikuspegia argi uzten duen esaldia izan da: Haurra da protagonista, bere ongizatea da premia.

Abuztuaren 27an pedagogak honako esaldia esan zidan “gurekin ikasiko duzu, baina guk zurekin ikasi nahi dugu”. Filosofia hori bera da ikasleekin daukatena, baita gizarte osoarekin eta naturarekin ere bai. “Zure hizkuntzan abesti bat erakutsi, agurtzen ikasi nahi dugu, bertako eskola eta haurren argazkiak erakutsi, egiten dituzuen gauzetaz ikasi nahi dugu. Niretzat aldatzera zabalik egotea, eta ikasteko jarrera baikorra edukitzea gakoa da hezkuntzan”. Hitz horiek emakume horretatik entzutean, esperientzian oinarritutako hitz jakitsuak iruditu zitzaizkidan, oso umilak; Beti baitago zerbait ikasteko!

Abuztuaren 29an, ostirala izan zen. Askok nabaritu genuen eskolan. Oso ume gutxi etorri ziren, hamaika. Izan ere, Guraso askok libre dutenean, ez dituzte haurrak eskolara ekartzen. Oso ondo iruditzen zait, adin horretan, familiarekin egotea ere oso beharrezkoa baitute. Hori bai, ez etxean telebista ikusten egoteko, harekin jolasteko, mendira edo parkera joateko, etab. Gizarte honetan helduak oso lanpeturik bizi gara eta haurrek maitasuna behar dute, eta txikiak direnean hare gehiago, non egongo da hobeto ama edo aitarekin baino?

Ostiralero talde txikietan (5 edo 6 umeko taldetan) haur eskolako igerilekura doaz. Taldeak ez dira finkoak eta aldatuz doaz, hori bai, adin eta sexu desberdinak tartekatzen saiatzen dira beti. Taldeak oso pentsatuak daude eta astean zehar bizi izandakoaren arabera eratzen dira profesional guztien artean. Adibidez, bi umeren artean gatazka egon bada, elkarrekin jartzen saiatzen dira, horrela konpontzen saiatzeko. Edo bi ume aste horretan zehar oso ondo egon badira, astea amaitzeko ere elkarrekin jartzen dituzte.

Igerilekua patio erdian dagoen kristalezko gela bat da, bainuontzi erraldoi bat. Bertara irakaslearekin joaten dira. Izugarri ona da autonomia lantzeko, eurek arropa kendu eta bainujantzia jantzi behar dutelako. Gainera beste hainbat gauza landu daitezke, hala nola, motrizitate fina, elkarreragina (alderdi soziala), alderdi ludikoa (jolasekin oso ondo pasatu)... Gaurkoan adibidez edukiak landu dituzte euren interesetatik abiatuz. Ume batek, kubo bat hartu urez bete eta sartzerakoan ura ateratzen zela konturatu eta etengabe egon da horretan. Beste ume bik botilatxoekin ibili dira, zein zen handiena kalkulatzeko. Neskak keptxup botilekin zorua margozten ibili dira eta elkarri bustitzen, euren arteko harremanak sendotuz, etab.

Ikaragarri polita da gela hau, benetan zoragarria da ikustea nola kanpoan txingorra dagoen, eta guk barruan bainujantzeiarekin, eta izardun sabaiarekin; espazio ikaragarria da, aukera anitzak dituena. Bereziki zientzia arloa lantzeko, esperimenduak egiteko, materien dentsitatea trebatzeko (olioa eta ura, zer gertatzen da? Eta azukrea? Eta kolakao?), temperaturak lantzeko, baira haurrek urari beldurra kentzeko ere.

Bitartean, gainontzeko taldetxoek, puzzle bat birziklatzen egon dira. Puzzle horretaz aspertu direnez, udazkenaren kolorekin margotu dute tenperaz (gorria, laranja, horia...) horrela zuhaitz handi bat osatzeko! Horrelako muralak EAEn ere egiten ditugu, baina askotan material berriak erabiltzen ditugu, birziklatzea presenteago eduki beharko genuke! Primerako gauzak egin daitezke eta!

## *Irailak 2*

Egun horretan arratsaldean joan nintzen haurreskolara. Unibertsitateko ordutegia zela eta, beti goizean joaten nintzenez, ikusi nahi nuen arratsaldetan zer egiten zuten. Ume guztiak kalera irten ziren jolastera, nahiz eta gaurkoan bezalaxe, euria eta hotza egin. Korrika eta saltoka ibiltzen ziren, baita trizikloekin ere. Jolasaren bitartez, helduekiko harremana ere asko sendatzen dela ikusi nuen, izan ere, heldua behatu egiten du, baina baita jolastu ere bai.

Ume bakarra (gelako txikiena, Teodor) izan zen siesta bota zuen ume bakarra. Neure harridurarako kalean egin du, bere ahulkitxoan, nahiz eta euria eta hotza egin.

Pedagogak nire harridura ikustean, honakoa esan zidan: “Norwegian guztiek kalean lo egiten dute. Horretarako arropa prestatuak ditugu, haizea eta euriaren kontra. Ez dago eguraldi txarrik, arropa txarra baizik” hausnarketa itzela iruditu zait!

Pixkanaka-pixkanaka gurasoak euren seme-alaben bila etortzen joan ziren, ordutegi finko barik. Laguntzaileak ume bat eramaten zutenean, zerenda batean ordua apuntatzen zuen, kontrol bat eramatearren.

Ume bik negarrez joan ziren ez zutelako etxera joan nahi. Hori ez da nire testuinguruan inoiz gertatzen. Bestalde, nire arreta deitu du guraso gehienek adinak. Askok nire adina edukiko dute, eta esango nuke guzti-guztiek 35 urte baino gutxiago dituztela. Gurean, berriz, gurasoak gero eta zaharragoak izan ohi dira.

### *Irailak 3*

Norbaitek zerbait desagokia egiten duenean, profesionalak ez dute bere izen propioa esaten, baizik eta “stop”. Horren arrazoa argia da, gainontzeko umeak oso erraz gelditzen dira etengabe errepikatzen dituzten izenekin, eta espektatibak (ume hori gaiztoa da, negartia da, txarto portatzen da...) umeen gainean ez sortzeko, hitz hori esaten dute. Haurrek badakite zerbait desagokia egiten dutenean, eta horregatik, ez da behar izena oihukatzea, nahikoa da kontaktu bisuala egotea eta “stop” hitza esatea.

Bestalde, haur batek bere harri kolekzioa ekarri zuen eskolara. Korroan, banan-banan hiru erakutsi zituen. Haur guztiek ikutu zituzten, euren koloreak eta formak aipatu eta haur horren zaletasuna goraiatu zuten. Horrelakoak ere entzun ziren “zelako politak zure harriak”, edo “gero patioan beste harri berezi bat bilatuko dizut”.

### *Irailak 11*

Astero, gela bakaitzeko pedagogoak zuzendariarekin biltzen dira, Sokrates taldearen kasuan, Anniken. Gela bakoitzeko gainontzeko profesionalak, ordea, 15 egunero. Bilera horietan, egun bakoitzeko plangintza egiten dute eta ume bakoitzari arreta jartzen diote, bakoitzak behatutakoa komunean jarritz.

### *Irailak 15*

Irailaren 15eko eguraldia paregabea izan zen, eta hori probetxatuz, eguna kanpoan eman genuen, patioan. Gehienek, “Rayuela”ra jolastu dute, baina hemen “paradisu” izena dauka. Jolas honen bidez, zenbakiak erreparatu dituzte, itxaroteko txandak errespetatzen ikasi dute, mugimendua landu dute, elkarreragina, etab. jolas tradizional honen bertsio bat ere egin dute, alfabetoaren letrekin, eta horretan ere ibili dira. Egia esan, edozerrekin jolastu daiteke (animaliak, janariak, lanbideak...) hiztegia ikasteko joko polita da! Askotan ez dira behar gauza oso landuak, oinarria, tradizioan egon

daiteke.

Horretan geundela, ume bat jauzi zen eta ezpainetan zauria egin zuen. Protokoloa jarraituz, zuria urez garbitu genion, izotza jarri eta gurasoei deitu. Segituan, aita etorri zen, ahoa eta batez ere hortzak begiratu dizkio (hemen dentista oso garestia delako), baina guztia ondo zegoela ikustean, lanera itzuli eta umea jolasten eskolan geratu zen.

Beste ume batzuk, ordea, harean jolasten ibili ziren. Eurekin tartak egin nituen, forma geometrikoak erreparasatu genituen, zenbakiak, tartak egiteko osagaiak, eta baita zorionak abestia ere bai!

*Gratullerer med dagen,  
Gratullerer med dagen,  
Gratullerer kjaere (haurraren izena),  
Gratullerer med dagen!*

Unibertsitatera joan nintzenean, guztiok atetik agurtu ninduten. Horrek malko batzuk nire aurpegitik isurtzea eragin zuen. Oso denbora gutxi neraman eskolara joaten, eta zelako maitasuna diogun elkarri! Umetxo hauek zoragarriak dira benetan!

*Irailak 22*

Irailaren 22an ohi baino beranduago heldu nintzen haur eskolara, goizean unibertsitatean klase baineukan. Heldu orduko, jarduera hasita zegoen. Haurrek pumcakeen masa eginda zeukaten, bananak moztu, esnea gehitu eta gurina, irina, pasak nahastu zituzten. Ondoren, borobil forma ematen zeuden. Hori bai, irakaslea izan da labean sartu dituenak!

Esan beharra dago, hori ez zela egun horretako jarduera. Irailaren 22an tipi bat montatuko zuten patioan, eta sutondoaren inguruan, istorioak kontatuko zituzten palomitekin batera. Eguna oso-oso haizetxua ibili zenez, ezin izan zuten tipia montatu, beraz, azkeneko momentuan, planez aldatu zuten. Edonola ere, jarduera polita izan zen sukalde tailerrarena! Haurrak motibatuta ibili ziren, eurek sortu eta jango zutelako!

Tailerra amaitzean, patiora irten eta hostoekin jolasean ibili ziren gehienak, izan ere, haizeak hara eta hona eramaten zituen, lurrean zeuden hostoak.

*Irailaren 22tik 26ra*

Aste horretan arrainak landu genituen. Horretarako, Astelehenean, gelan zeuden animalia guztiak hartu zituzten (panpinak, pelutxeak, platerrak, ipuinak, etab.) eta horiek sailkatzen joan ziren, arrainak ez zirenak baztertuz. Horretarako, arrainen ohiko ezaugarriak erreparatu zieten (uretari bizi, bi begi, ezkatak, hegalak, beso eta hankarik eza, etab.) Asteartean, ozeanoa eraiki zuten zuten, oihal urdin bat lurrean jarriz eta arrain ezberdinekin bertan jolastuz. Asteazkenean, salmoia jan zuten bazkaltzeko eta



arrantzaren jolasa egin zuten (motrizitate fina eta koloreak lantzeko oso ona, baina nire iritziz lehiakortasuna gehiegizkoa izan zen). Ostegunean, mural bat egin zuten bakoitzaren argazkiarekin eta jaiotze datarekin gelan jartzeko eta ostiralean, arrainak arrantzatu dituzte igerilekutik eta akuarioan sartu dituzte, gelako akuarioa osotuz.

### *Irailak 30*

Oraindik harritzen ninduen zeramaten arropa kantitatea: bi galtzerdi (bata arruta eta bestea artilezkoa), azpiko arropa termikoa, ohiko prakak, sudadera edo forro polarra, kanpoko monoa edo praka eta txamarra, katiuskak, eskularruak, txanoa eta tapaukia. Horrela jantzi ondoren, patiora irten ginen barbakoa egitera.

Harritu ninduen bakoitzak bere janaria eramateak. Bakoitzak bere saltxitxak, ogia, fruta, barazkiak, etab. ekarri ditu. Hala ere, guraso askok euren semeak jaten zuena baino askoz gehiago jarri diote, horrela norbaiti ahazten bazitzaion jan zezan. Horixe da, norvegiako gizartearen isla. Oso polita izan da adibidez, ume batek bere azenarioa erditik zatitu eta albokoarekin partekatzen ikusteak.

Umeen artean badago musulman bat, eta horrek oilazkoz eginiko saltxitxak ekarri zituen, txerria ezin duelako jan. Horregatik, albal batean egin genituen, naturaltasun osoz. Oso giro atsegina izan zen, suaren inguruan bazkaltzen, naturaz inguraturik. Errepikatzekeo esperientzia dudarik gabe!

Ogia amaitu zenez, baina saltxitxak oraindik gelditzen zirenez, taloaren antzeko ogia egin genuen guztion artean. Esnea, olioia, gatza, irina eta legamia nahastu eta bakoitzak bere ogi-bolatxoa egin zuen. Primerakoa izan zen, ondo pasatu genuen eta gainera, motrizitate fina landu genuen!

Amaitzean, zabor guztia batu eta jolas askean aritu ginen. Harrigarria izan da, ume bateri uztaila gelditu zaiola zuhaitzean eta guztien artean, inolako helduen laguntzarik gabe, jeisten saiatu izan direla: beste uztaila bat botatzen, makil batekin kentzen, adarrak mugitzen, etab. Azkenik, helduaren laguntza eskatu behar izan dute, baina buruari eragin diote arazoa euren kabuz solbatzeko.

### *Urriak 2*

Haur eskolara heldu nintzenean pedagogoa kanpoan zegoen ume batekin. Ume hori ez da hiperaktiboa, ume mugikorra baino ez, eta horregatik, behar duen guztietan patiora ateratzen dute, korrika egin dezan, basotik ibili dadin, salto egin dezan... Gure testuinguruan, erritmo bera jarraitu beharko luke; eserita egon beharko luke, eta horretarako pilulak hartuko lituzke seguraski. Kanona jarraizen ez duen guztia, premia bereziak ditu, eta beharbada soilik ume mugikor bat baino ez da.

Ume hori lasaiago egon zenean, sartu egin ziren, eta korroan, abesti bat abestu zuten: *a, du gode sparegrisen min (oh, nire txerritxo ona)*. Txerri baten historia kontatzen du, nola hutsik dagoen, eta txanponaz betetzen duten. Horretarako hutxa batez baliatu ziren eta ume bakoitzak, txanpona sartu du. Baliabide polita izan da zenbakiak erreparasatzeko.

### *Urriak 3*

Aste horretan Indian, festibal berezi bat zegoen eta horregatik, alboko gelako laguntzaileak, bertako janari tipikoa prestatu du. Zoragarria izan zen! Horrelako aukerak probetxatu behar dira, egoera oso aberatsak baitira. Janariaren bidez, Indiari buruz hitz egiten egon ginen, geografikoki non dagoen, zelako bandera daukaten, nolakoak diren, janzkerak, tradizioak, elefanteak, etab. zenbat dakiten haurtxoek!

Jaterakoan oso interesgarria izan da platerretan izenak jartzea. Eurak euren izena dagoen platerra bilatu behar dute eta bertan eseri. Beraz, egun bakoitzean, kokapen ezberdin bat daukate, sozialki harreman ezberdinak bideratzeko, eta baita bere eta besteen izenak identifikatzeko. Beraz, jolas polita da eta oso funtzionala eta erreza.

### *Urriaren 7an*

Asteartero bezala txangoa egin genuen. Irailaren 7an, basora joan ginen. Zelako prestakuntza, pila bat arropa eramaten zuten eta kostatu egin zait bakoitzaren ordena jakitea. Behin guztiak jantzita geundela, txaleko erreflektanteak jantzi ditugu eta profesional guztiekin batera basora abiatu gara, trenaren ordeztan, hegazkina eginez (hirunaka, launaka...) eskutik oratuta eta adin desbernietako haurrak tartekatuz. Basoan, haur bakoitzak bere bazkaria jaten du, horretarako prestatuta daukaten asanbladan. Amaitzean, zaborra batu eta jolastera doaz.

Irakaslearen esanetan, basotik ibiltzea laguntzen die gaitasun espezifiko batzuk barneratzen, Hala nola, maldan ibiltzen, euren ikaskuntza eratzeko, autonomoki ingurugiroa ezagutzen, obesitatea ekiditzen eta sormena lantzen. Nire ustez azkenengo hau oso presente dago euren jolas sinbolikoetan. Hots, makiltxo bat, suhiltzaileen mangera izan daiteke, pistola bat edo maitagarri baten barita magikoa. Bestalde, txundituta utzi ninduen bost urteko haur betek niregana jo zuenean eta esan zidanean makiltxo batek urtxintxa baten koska zeukala.

Niretzako izugarria da, baso hura eskolatik hain gertu edukitzea, eta horretatik probetxu ateratzea. Guk EAEn horrelako aukerak eduki baditugu, baina askoz gehiago erabili beharko genituzke.

*Urriak 8*

Urriaren 8an, Samien eguna ospatu genuen. Haur eskola honetan urtean behin ospatzen duten egun kulturala da. Jaialdia ospatzeko, tipi handi bat montatzen dute patioan. Samien banderaz betetzen dute eskola, eta samien inguruan hitz egiten ematen dute eguna: samien bideoak eta argazkiak ikusten dituzte, abesti eta ipuin tradizionalak kontatzen dituzte, hitzen bat ikasten dute... baita janari tradizionala dastatu ere bai!

Oso egun berezia izan zen, bai umeentzat baita niretzat ere. Asko ikasi genuen sami kulturaren inguruan. Benetan esperientzia bat izan zen eskolako gela guztiak tipi erraldoi horretan egotea, oreinen oihal guzti horiekin lurrean, Norvegiako jaki tradizionalak dastatzen...magikoa izan zen! Pena bat izan zen, 12etan unibertsitatean klase edukitzea eta handik hain goiz alde egin behar izatea!

*Urriak 9*

Egun hartan salmoia izan zuten bazkaltzeko. Askotan bezalaxe, platerrean euren izena aurkitu behar izan zuten. Eurak botatzen zuten ura pitxerretik eta baita salmoia zatitu ere. Bakoitzak bere janaria prestatzen zuen (brokolia, arroza, azenarioa eta salmoia bowletan zeuden eta eurak nahi zuten kopurua bota eta nahastu behar zuten). Beraz, autonomia da dudarik gabe gelan gehien lantzen dena. Norbaitek lurzorua edo mahaia zikinduz gero, garbitzeko ahaleginak egiten zituen (fregona, zapia, etab.). Bestalde, nabarmendu nahi nuke hezitzaileek ere eurekin jaten dutela, asko ikasi daiteke jaterako orduan. Gainera, harreman afektiborako bidea da (janzte bezalaxe).

*Urriak 14*

Urriaren 14an ere, basora joan ginen, aurreko astean bezalaxe. Egun hartan konturatu nintzen haurrek oso gutxitan negar egiten zutela, eta horri buruz irakasleari galdetu nion. Har hauxe esan zidan: “Haurrek hemen ez dute negarrik egiten, edo oso negar gutxi egiten dute. Euren emozioak kontrolatzen irakasten diegu. Erortzen badira, altxatzen dira, zerbait kentzen badiete, hitz egiten konpontzen dute eta gutxitan jotzen dira edo elkar oihukatzen dira. Gizartean aurrera egiteko prestatu nahi ditugu”.

Niri hitz horiek ez zitzaizkidan askorik gustatu. Zein puntutaraino izan daiteke ona, emozioak hainbeste kontrolatzeak? Azken finean haurrak dira, eta naturalena da, erortzen direnean negar egitea, arreta deitzeko negar egitea, eta egozentrismo garaian, besteak daukana norberarentzako nahi izatea. Pozik bazaude irribarretsu egotea; berriz, triste bazaude, negar egitea. Gizakiak gara eta emozioak dira horren adierazle.

*Urriak 16*

Urriaren 16a oso egun berezia izan zen haur eskolan: Baserrira joan ginen! Iraila eta

Urriaren zehar, animalien proiektuarekin ibili ginen goza eta behera, eta egun horretan, autobusa hartu eta baserriko animaliak ikustera baserri batera joan ginen. Eguzki zoragarria izan zen: txerriak, ardiak, behiak, oiloak eta untxiak ikusi genituen. Haurrak oso motibatuta egon ziren animalia guztiak ikutzuz, eta batzuk baita hartu ere! Haur nagusienek, 5 eta 6 urtekoek, behiei esnea atera zieten, egotzi eta bazkaltzeko edan genuen. Txikiak, batez ere Teodor (gelako ume txikiak) beldur handia izan zuen momentu oro. Harrigarria, izan da niretzat, bera horrela ikustea, izan ere, oso ume mugikorra, ausarta eta urduria da.

Baserrira umeekin batera bost heldu joan ginen: pedagogoa, irakaslea, praktiketako ikaslea, laguntzailea eta ni. Benetan zoragarria izan zen formazio ezberdineko hainbeste heldurekin joatea! Sutondoaren inguruan bazkaldu genuen eta ondoren, zelai batean egon ginen ardiekin batera jolasten.

Txangoa oso oso polita izan zen. Umeak animaliak ezagutzea, elikagaiak nondik datozen jakitea eta Norvegiako antzineko bizimodua ikustea, benetan garrantzitsua da. Hala ere, Euskal Herrian horrelako txangoak ere eskoletan egiten dira, beharbada tratua ez da hain hurbila izango, edo ume gehiago doaz txangora, baina esperientzia antzeko bizi dut praktiketan ere bai.

#### *Urriak 20*

Urriaren 24an Whenche gaixorik egonda, ezin izan zuen etorri. Gelan izugarri nabaritu zen. Umeak oso urduri zeuden, eta gainera kalean, eguraldi txarra baino txarragoa zegoen. Kaleak izotzez beterik zeuden, laban egiten zuen eta ezin izan genuen kalera irten. Beraz, eskolako patioan gelditu ginen. Umeek hezitzailearen falta bota zuten, eta beharbada horregatik, ume askok ni erreferentziatzat hartu ninduten egun hartan. Neurri batean estresa sortu zidan, hizkuntzagatik (ez nielako ulertzen) eta guztiei arreta eskaini nahi nielako (eta noski, ezinezkoa egiten zitzaidan). Baina era berean, horrek asko poztu ninduen, izan ere, hori esan nahi zuen, maite nindutela, haientzeko garrantzitsua izaten hasi nintzela, neurri batean.

#### *Urriak 24*

Bazkaltzen genuen bitartean, Annikenekin helburuez eta ebaluazioaz hitz egin nuen. Hainbat galdera baintuen. Nire galdera askoren ondorioz hark esan zidan, Osloko ministerioak argitaratzen duela zer landu behar duten baina barnehagen bakoitza da azkenean erabakitzen duena zer landu eta zer ez. Ikasgela bakoitzak bere helburuak ditu, baita ume bakoitzak ere. Beraz, Sokratesek, adibidez, klase moduan daukate udazkena kontzeptua barneratzea (udazkenaren koloreak, eguraldia, hilabeteak...) baina gero ume

bakoitzak helburu espezifikoak ditu, adibidez Teodor aste honetan kideei kozka egiten hasi zen. Beraz, bere helburua izango da, kozka ez dela egin behar ikastea, eta horretan diharduko dute irakasleak: mordedoreak emanez, egiten duen bakoitzean harekin hitz eginez, etab.

Ebaluazioa, berriz, ez da gurea bezalakoa. Irakasle taldea 15egunero biltzen dira umeei buruz hitz egiteko eta ikusitako guztia idazten dute eta hobetzeko edo zoriontzeko proposamenak egiten dituzte. Ondoren, hiruhilabetean behin edo birritan gurasoekin biltzen dira formalki, jasotako informazioaz hitz egiteko. Hala ere, eguneroko kontaktu estua daukate, beraz, gehienetan bileretara doazenean, jakinaren gainean daude. Amaitzeko azpimarratu nahi dut, ez dutela boletinek inolako notarekin. Hezitzaile hauei ez zaie inporta 1etik20ra zenbatzen dakien edo 1etik 15era, ulertzen dutelako ume bakoitzak bere erritmoa duela ikasteko, eta adin desberdinetako umeak daudelako (beraz, logikoki ume batzuk beste batzuek baino esperientzia gehiago daukate bizitzan, kontzeptu gehiago barneratu dituzte.) Euren ustez, azkenean guztiok ikasiko dituzte koloreak, zenbakiak, letrak... arinago edo motelago, eta bereziki umeren bat besteekin alderatuz oso diferentzia handia badago, arreta berezia jarriko diote, edo laguntza eskainiko zaio. Baina benetan garrantzia ematen diotena da elkarren arteko interakzioari, partekatzeari, elkarbizitzari, baloreei: irakatsi baino gehiago, haurrak hezi nahi dituzte.

### *Urriak 29*

Bazkaldu ondoren patiora irten ginen, eta bertan eman genuen arratsalde osoa. Urteko lehenengo elurtearekin jolasean ibili ginen. Badaude ume batzuk oso ausartak direnak, eta patioko aldapetatik txirrista moduan botatzen igaro zuten eguna, behin eta berriro. Batzuek, lasterketak eta guzti egiten zituzten lehenengoak lurrera heltzeko. Beste ume batzuk, aldiz, hondarretan ibili ziren, elurraren artean, area atera nahirik, lan eta lan palarekin. Baina nire arreta guztia, bereziki ume batek piztu zuen. Konturatu egin zen elurra zapaltzean edo putzu batean elurra sartzean, urtu egiten dela, eta ura lortzen ibili zen, horrela landarak ureztatu nahiean! Poztu egin ninduen haurrak hain aktibo ikustea eguraldi horrekin, baita irakasleak ere.

### *Urriak 31*

Egun horretan irakasleak eguna libre zeukan. Asteazken zehar profesionalek, egun bat libratzen dute, astero ezberdina dena (Vegardek ostirala izan zuen, baina hurrengo asteazkenean izan daiteke). Beraz, Thomas etorri da, beste laguntzaile bat. Urriaren 31n halloween ospatu dute. Pedagogoaren esanetan, normalean, ez da haur

eskolan ospatzen, Norvegiako ohitura ez delako, baina euren kulturaren gero eta gehiago integratzen ari denez, urte horretan lehengo aldiz lantzea erabaki zuten.

Beldurrari lotutako jarduera bat egin zuten. Pedagogok maleta handi bat ekarri zuten, objektuz beterik. Umeak borobil erdian eserita zeuden eta pedagogok objektuak ateratzen zituen heinean, horiek asmatu behar zituzten. Ondoren, objektuari buruz oso labur hitz egiten zuten (zer emozioekin lotzen zuten: poztasuna edo beldurra, anekdotatxoren bat...). Hainbat objektu atera ziren: katu betz baten kareta, pailazo sudurra, plastikozko armiarma bat, tertziopelozko kapa urdin bat, beroki handi iledun eta beltz bat eta azkena, txerri bat izan da.

Aurretiaz hainbatetan landutako abestia abestu diote (sparegrisen mine) eta apurtu egin dute, ume bakoitzak mailuarekin pixka bat eman eta dirua kontatu dute. Modu honetan, dirua ezagutu dute (txanponak eta bileteak) eta gainera batuketak egin dituzte. Dirua kontatu dutenean, kutxa batean sartu dute eta errumaniara bidaliko dute. Gela osoak, ume bat dauka Errumaniar apadrinatuta eta hark neguko arropa erosi ditzan bidaliko zioten dirua.

Esan beharrekoa da, ume hori gelan oso presente daukatela. Haren argazkiak horman jarrita dituzte eta txerri horretan, nahi duten guztietan, hurrek dirua sartzen dute. Oso kontzientziatuta daude eta mutikoa ezagutzen ez duten arren, benetan maite dute.

Ekintza honen bidez, umeek eskuzabal izatearen garrantzia eta sentimendua lantzen dute. Gainera, pedagogok dioten moduan “ardura bat daukate” gelan, ume hori zaintzea (Horregatik ere, arrainak dituzte).

#### *Azaroak 4*

Astearte horretan, basora joango ginen. Bertara joateko, betikolez, arropa ugari jantzi behar genuen. Siv izeneko neskatoa, ordea, ez zuen ulertzen zergatik egun horretan katiuskak jantzi behar genituen. Pedagogok patxadaz azaldu zion, baina segituan, negar batean hasi zen nire praken alboan. Irten aurretik, lasaitu behar zela argi zegoen. Pedagogok, beraz, altzoan hartu eta aldagelatik urrun eraman zuten, gelara. 15 Minutu eman zituen negarrez, eta azkenean, guztiok horrela jantzita zeudela ikustean, katiuskak hartu eta “hegazkinean” jarri da.

Basora joan ginen, bai, baina aurrekoetan ez bezala, egun hartan, beste bi haurtzaindegiko haurrak ere bazeuden. Oso polita izan zen umeak elkarrekin jolasten ikusteak eta irakasleak euren artean ere harremanetan ikustea. Esperientziak partekatzen zituzten eta guztiok batera bazkaldu genuen. Beraz, ikusi daiteke nola eskolak irekiak

diren erakundeak dira: herrian bizi eta parte hartzen dute.

#### *Azaroak 5*

Azaroaren 5ean, argazkiak egitera joan nintzen eskolara. Umeek gero eta gehiago maite nindutela frogatu nuen egun hartan, gehienak korrika etorri baitziren ateraino nire izena behin eta berriro errepikatuz. Beste haur batek, nire atzetik joan zen argazkiak egiten, ni imitatuz. Beste neskato batek, aldiz, niregana etorri da arropa janzteko nire laguntza baino ez zuelako nahi. Horrek harro eta oso ongi sentiarazi ninduen, umeek ni baloratzea eta maitatzea zerbait ondo egiten nengoelaren seinalea baitzen.

#### *Azaroak 7*

Ostiralero bezalaxe, bost umek izan zuten bainatzeko aukera. Ondoren, indioen eguna ospatu genuen, praktiketako ikaslearen esku-hartzea izan zen. Beraz, irakaslea eta praktiketako ikaslea bat-batean danborrekin eta mozorratuta sartu dira eta haurrak agurtu zituzten.

Benetako indioak izateko, aurpegiak margoztu genituen, eta tipi moduan dekoraturik zegoen jolasteko gelan sartu ginen. Bertan, indioei buruz hitz egin genuen (haurren aurrezagupenak partekatu genituen). Ondoren, benetazko indio baten argazkia ikusi eta komentatu zuten. Jarraian, eguzkiaren dantza egin genuen eta erritmoak lantzeko letrarik gabeko abestia egin genuen. Amaitzeko, “janariaren bila” izeneko jolasa egin genuen. Eskola osotik zukuak eta indiarren janariak izkutatu zeuden eta indio moduan irten behar genuen horien bila; “ehiza” egitera. Primerako eguna izan zen!

#### *Azaroak 11*

Azaroaren 11n euri zaparrada itzela bota zuen, baina hala eta guztiz ere, kalera irten ginen. Astearte horretan polikiroldegira joan ginen eta bertan bazkaldu genuen. Bidean zehar, Ferry batean gindoazelaren jolasa egin dugu, euriari barreka eginez eta launaka edo hirunaka joanez. Hurrek ferriaren soinuak ere egiten zituzten eta euriak eta iluntasunak ez zien tristetzen.

Polikiroldegian bazkaltzeak lelokeri bat dirudien arren, niri oso aberasgarria iruditu zitzaidan. Batetik, kalera irten ziren, eta horrek umeak lasaitu zituen, gatazkak erabat gutxituz. Bestetik, espazio berria ikusi zuten eta kirol ezberdinei erreparatu zieten.

Harrigarria da inguruan zenbat gauza egin daitezkeen askorik mugitu barik. Eta harrigarria da ere bai, hurrek dituzten arropa ezberdinak. Egun hartan, beste arropa mota batzuk jantzi zituzten. Orain, beste arropen ordena ikasita nuela, berria berriro ere ikasi behar nuen! Hala ere, jada, nire intuizioa asko hobetu zuen eta gero eta gehiago

ulertzen nituen umeen esanak, beharbada norvegiarako klaseen ondorio zuzena zen.

*Azaroaren 17tik 24ra*

Norwegian kurtsoak urtarrilean hasten dira. Beraz, urtarriletik aurrera haur askok haur-eskola utzi eta Lehen Hezkuntzara igaroko dira. Horretarako, astelehenero prestatzen dituzte talde txikietan. Hala ere, aste horretako proiektua ere, bereziki horientzako zuzendua izan zen. Seinaleak landu genituen, izan ere, ohikoa da Norwegian LHko haurrak bakarrik eskolara joatea, gehienak, auzoko eskola publikora doazelako. Horregatik, beharrezkoa ikusi dute seinaleak lantzea.

Astelehenean, auzoan aurki daitezkeen seinale batzuk ikusi zituzten eta guztien artean, euren esangura lortu zuten. Asteartean, berriz, jolas bat egin zuten “memory”. Ikasle batek seinale guztietatik bat hartu eta besteek zein hartu duen antzeman eta bere esangura interpretatu behar zuen. Asteazkenean, beti eramaten dituzten erreflektanteen zentzua ikusi zuten esperimentu baten ondorioz (argiak itzalita guztiek txalekoa jantzita linterna batekin, ikusi zuten nola txalekoa jantzita ondo ikusi daitekeen, baina hura gabe zaila). Ostegunean, murala egin zuten, auzoa margoztuz: zebra bideak, kotxeak...Harrigarria da haurrek duten pertzepzioa, detaile askorekin gelditzen dira! Ostiralean, berriz, kalera irten ziren bueltatxo bat ematera. Asteazkenean zehar ikasitako seinale guztiak bilatu behar zituzten, eta horien garrantzi eta funtzioa ikusi. Proiektuari amaiera emateko, azaroaren 24an, Polizia batek bere kotxearekin etorri zen bisitan. Haurrek bertan montatzeko aukera paregabea izan zuten, sirenari emateko eta polizia trafikozko galderak egiteko.

Planteamendu zoragarria iruditu zitzaidan, funtzionala (erabilera bat dauka) eta hortaz oso interesgarria haurrentzat. Interes hori ikusi ahal izan zen asteazkenean zehar, izan ere, euren jolas libretan ohikoa izan zen haurrak errepideen alfonbran jolasten eta ikasitako seinaleen simulakroak egiten ikusteak (pertsonak zebra bidetik, kotxeak semaforoa gelditu, abiadura murriztu, berdean pasatu, etab.)

*Azaroak 25 eta 26*

Bazkariak antolatzeke modua lehenengo momentutik gustatu ez zaidan gauza bakarrenetarikoa da. Bakoitzak etxetik ekartzen du janaria. Hori ondo dago, seguraski prestaketa horretan parte hartzen dutelako (eurak erosi eta prestatzen dutelako) baina horrek ezberdintasunak areagotzen ditu gelan. Adibidez, Theok astearteetako txangoetarako beti takoak eta pizza ekartzen ditu jateko. Osasun aldetik txarto egon daiteke, baina irakasleak ezer gutxi egin dezake horretan, gurasoekin hitz egin baino ez. Emiliak, berriz, sagar bat, azenario bat, bi gaileta maria eta tostada bat ekarri ohi du.



Ondorioz, gaur Emiliak ez du bere janaria jan nahi izan, albokoaren janari “goxoa” ikustean. Egoera zaila benetan.

Azaroaren 25ean, Basora joan ginen. Bertan piñak hartu genituen horrela, gabonetako zuhaitzak hurrengo egunean egiteko. Lehenik eta behin, aurreko astean zehar margotutako mazeta hartu genuen. Horren barruan, aldizkariekin bola bat egin, eta horren gainean, basoan hartutako piñak jarri genituen. Piña horiei kola eman eta brillantina bota genien. Binakako taldetan egin zuten, pedagogoarekin batera eta tailerrean.

Gainontzeko haurrak, bitartean, jolas librean aritu ziren. Jarduera polita izan zen haurren kezketatik sortua, izan ere, haur batek esan zuen etxean zuhaitzik ez zeukala. Beraz, kezka horretik abiatuz, zuhaitz indibidualak etxera eramateko birziklatu zituzten. Esan beharra dago, gelako haur guztiek zuhaitza egin zutela; bakoitzak bere modura. Oso sormentsuak izan dira!

*Azaroak 27*

Azaroaren 27ko eguna oso urduria izan zen. Pedagogo gaixorik zegoen, eta gelan hori asko nabaritu zen. Umeak ohi baino gehiago oihukatzen zuten, gatazka ugari egon ziren eta iskanbila nagusi izan zen. Betiko moduan, irakasleak, prozedura berdina jarraitu zuen. Norbaitek negar gehiegi egiten zuenean, “stop, stop” eta hitz egiteko eskatzen zion. Haren ustetan, ondo dago triste egotea, askotan umei triste egoteko momentuak utzi behar zaizkielako, baina euren arazoak hitz eginez konpontzen direla ere ikasi behar dute gizartean aurrera egiteko. Beraz, irakaslearen lehenengo inpulsoa beti maitasuna eskainiz, gertatu dena kontatzea da. Ondoren, haurrak elkarren artean adostasun batera heltzeko ahalegina egiten du. Azkenik, adostasun hori egon ezean, atenzioa desbideratzen saiatzen da, besteak beste, jolas berriak proposatuz edo jarduera bat antolatuz.

*Azaroak 28*

Egun horretan gabonetako “paperkake” gaileta tradizionalak egin genituen. Amona batzuk etorri ziren eta haurrak launakako taldeetan, eurekin gailetak egiten joaten ziren. Paperkakeak oso gaileta famatuak dira Norvegia osoan eta gabonetako formak dituzte (izeia, izarra, bihotza, oparia..). Haurrak gabonetako txanoa ere jantzi dute gailetak egiteko eta eskola osoan gabonetako esentzia nabaritzen hasia zen. Sukalde tailerra egitean, oso motibatuta ikusi nituen bai familiak baita umeak ere.

Arratsaldean, goizean egindako paperkakeak goxoki eta txokolatetxoekin apaindu genituen. Paperkake bakoitzean 7 txokolatetxo eta 2 gominola jarri behar zirenez,

zenbakiak landu dituzte. Gainera, koloreak ere landu dituzte, goxoki eta txokolatetxoak kolore ezberdinetakoak zirenez, nahi zituzten koloreetakoak eskatu eta euren artean aldatu behar zituzten.

Gaileta hauei erreparatuz, tradizioa da eskolan, egun bakoitzean haur batek soilik paperkakea jateko eskubidea izatea. Horrela, gabonak arte gelditzen diren egunen zenbaketa egiten dute eta pazientzia lantzen da. Haurraren aukeraketa, sortez egiten dute, bazkaldu baino lehen, eta haurra da erabakitzen duena, gaileta non eta norekin jan. Pedagogoa esanetan, asko ikusten da haurraren izaeraz: badaude gaileta partekatzen dutenak, segituan jaten dutenak, etxera eraman eta oparitzen dutenak, etab.

#### *Abenduak 1*

Abenduaren 1ean, Urrezko ari sorten ipuin tradizionala landu zuten panpintxoekin. Ipuina pedagogoak kontatu zuen arren, haurren parte hartzea sustatzen zuen etengabe. Adibidez. “txikia, ertaina eta... “ Eta haurrek “handia” esan behar zuten. Edo “basora joan zen eta horretarko, bide luzea egin zuen” eta panpina haurren hanka, buru, oin eta eskuetatik pasatzen zuen. Horrez gain, moldaketa arinak egin zituen ipuinean, horrela, haurren ingurunera hurbiltzeko: Protagonistari, izen norvegiarra jarri zion; basoak, hartzaindegi ondoko basoaren izena zuen; hartzen janaria, norvegiako janari tipikoa (grot) zen, etab. Oso teknika polita eta erreza izan da, oso material gutxirekin edozein ipuinetan aplikagarria dena. Haurrentzako erakargarria izan da, oso. Borobila gero eta txikiagoa egiten zuten, hobeto ikusteko, entzuteko edo istorioatik ahalik eta hurbilago egoteko.

